

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

Eraikin publikoetako mantentze-lanen Arduradun eraikin zazpi (7) plaza txanda irekitik eta oposizio bidez betetzeko deialdia eta prozesuaren oinarri espezifikoak. Plaza horiek Administrazio Berezikoak dira, Zerbitzu Berezien Azpieskalakoak, lanbideetako langile klasekoak, elkarte profesionalen taldekoak.

Alkateak DEC-2021/001777 (2021/05/11) Dekretua eman du. Zera dio testuak:

2017ko Basauriko Udalaren lan-eskaintza publikoa onetsi zuen 2017ko azaroaren 7ko 3550/2021 Dekretuak, eta, bertan, dagozkien prozesuen bidez bete beharreko plazak jaso ziren. Eskaintza osoa argitaratu zen 2017ko azaroaren 23ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (224. zenbakia), non, besteak beste, eraikin publikoetako mantentze-lanen arduradun plaza bi (2) beteko zirela, txanda irekitik.

Bestalde, 2018ko abenduaren 17ko 4445/2018 Dekretuak aldatu egin zuen 2018ko lan-eskaintza publikoari buruzko maiatzaren 14ko 1720/2018 Dekretua —testu osoa argitaratu zen 2018ko abenduaren 28ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (249. zenbakia)—, eta, besteak beste, jaso zuen eraikin publikoetako mantentze-lanen arduradun bost (5) plaza beteko zirela, txanda irekitik.

Gero, 2020ko abenduaren 22an eta 2021eko otsailaren 15ean, eraikin publikoetako mantentze-lanen arduradun plazen kontua jorratu zuten Negoziazio Mahaian, eta hautapen-prozesua arautuko zuten oinarri espezifikoak ere negoziatu zituzten, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuen urriaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretuaren 20.c) artikulua xedatutakoarekin bat.

Horrez gain, Basauriko Udaleko karrerako funtzionario izateko hautapen-prozesuak arautzeko oinarri orokorrak onetsi zituen maiatzaren 20ko 2070/2019 Dekretuak, zeina urte bereko ekainaren 11ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (110. zenbakia) argitaratu baitzen. Horrekin batera, baina, eskala, azpieskala eta klase bakoitzeko hautapen-prozesu bakoitzerako oinarri espezifikoak argitaratu behar dira, deialdi bakoitzaren berezko ezaugarriekin.

Horrela, bada, adierazitako guztia aintzat hartuta, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.g) artikulua esleitutako eskumenetan oinarrituta, Alkatetza honek zera

XEDATZEN DU:

Lehenengoa: Oinarri hauen xede diren hautapen-probetarako deialdia egitea

Bigarrena: eraikin publikoetako mantentze-lanen arduradun zazpi (7) lanpostu txanda irekitik eta oposizio bidez betetzeko prozesuaren oinarri espezifikoak onestea. Plaza horiek Administrazio Berezikoak dira, Zerbitzu Berezien Azpieskalakoak, Lanbideetako Langile Klasekoak, Elkarte Profesionalen Taldekoak.

Hirugarrena: Oinarri espezifiko horiek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta deialdiaren laburpena EAOn argitaratzeko agindua ematea.

Laugarrena: Dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, berau argitaratzen den dataren biharamunetik bi hilabeteko epean. Bestela, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoan. Hala xedatzen du Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluaekin bat.

Basaurin, 2021eko maiatzaren 11n.— Alkatea, Asier Irigorri Basaguren

**ERANSKINA****OINARRI ESPEZIFIKOAK: ERAIKIN PUBLIKOETAKO MANTENTZE-LANEN ARDURADUN PLAZA (ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALA, LANBIDEETAKO LANGILEEN KLASEA)****1. Deitutako plazak**

Eraikin publikoetako mantentze-lanen arduradun zazpi (7) plaza betetzeko deialdia egiten da. Plaza horiek Administrazio Bereziko Eskalakoak dira, Zerbitzu Berezien Azpieskalakoak, Lanbideetako Langileen Klasekoak eta AP Taldekoak. 14 lanpostu-maila osagarria dute, eta 043 berariazko osagarria. Txanda irekitik beteko dira, oposizio-sistema bidez, honelaxe:

- Txanda irekia: 6 plaza, derrigorrezko 2. hizkuntza eskakizunarekin.
- Txanda irekia: 1 plaza, derrigorrezkoa ez den 2. hizkuntza eskakizunarekin.

Zerbitzua zein tokitan emango den erabakitzeko, aintzat hartuko dira karrerako funtzionario gisa plaza jabetzan hartzerakoan libre dauden postuak.

Deitutako plazen kopuruari gehitu ahalko zaizkio sortzen diren lanpostu hutsak, zeinak alkate udalburuaren ebazpen bidez jasoko baitira deialdian. Edozelan ere, hasieran deitutako plazen kopurua handitu ahalko da deialdia gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratu aurretik (ez da aplikatuko, beraz, Oinarri Orokorren 6. atalaren lehen puntuan xedatutakoa).

2. Zereginak

Lanpostua dagoen zentroko azpiegiturak kudeatu, zaindu eta kontrolatzea. Lanpostua dagoen eraikin eta/edo instalazioetako matxurak konpondu eta kudeatzea. Lanpostua dagoen eraikin eta/edo instalazioetan higie- eta osasungarritasun-baldintza egokiak daudela bermatzea. Lanpostua dagoen eraikin eta/edo instalazioetan funtzionamendu egokia bermatzea. Bezeroei arreta eta argibideak ematea. Oro har, lanpostuaren eginkizunei lotutako edozein zeregin.

3. Baldintzak

Maiatzaren 20ko 2070/2019 Alkatetza Dekretu bidez onetsitako oinarri orokorretan ezarritako baldintzak betetzeaz gain, izangaiek eskola-ziurtagiria edo horren baliokidea eduki beharko dute.

Baliokidetza egiaztatzeko, izangaiek aurkeztu beharko dute administrazio eskudunak egindako ziurtagiria. Atzerrian eskuratutako tituluak dituztenek, berriz, egiaztatu beharko dute badaukatela dagokion baliokidetza, edo, bestela, homologazioa jasotzen duen egiazttagiria.

Horrez gain, adin txikikoekin harremana egongo den lanpostuetarako, izangaiek egiaztatu beharko dute ez dutela zigorrak jaso ez sexu-askatasun eta -ukigabetasun delituengatik epai irmo bidez, ezta gizakien salerosketa delituengatik epai irmo bidez ere. Hala xedatzen du Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak.

- Euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna duen plaza bat eskuratu nahi izanez gero, izangaiek ziurtatu beharko dute badaukatela Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoaren B2a, horren baliokidea, goragoko mailako ziurtagiria edo ofizialki onartutako titulu baliokidea. Bestela, eskatutako maila egiaztatzeko deialdiko proba gainditu beharko dute.

4. Eskabideak aurkezteko epea**4.1 Epea**

Hautapen-prozesuan onartuak izateko eskabide normalizatuak hogeita (20) egun baliouduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunetik zenbatzen hasita.



4.2 Eskabidearen baldintzak

Hautapen-prozesuan onartuak izateko eskabideen eredu normalizatuak HAZen eta www.basauri.eus webgunean daude. Alkatetzara zuzenduta egongo dira; eta aurkeztu beharko dira HAZen bertan (Kareaga Goikoa, 52), edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan.

Izangaiek eskabidearen atal denak bete beharko dituzte. Era berean, adierazi beharko dute eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela, 3. oinarrian ezarritakoarekin bat.

Horretarako, hautagaiek honako hauek jaso beharko dituzte eskabideetan, dagozkion ataletan:

- Datu pertsonalak.
- Oposizio faseko hautaprobak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten: euskaraz ala gaztelaniaz.
- Eskatutako eta aurkeztutako ikasketa-titulu ofizialak, deialdian parte hartu ahal izateko baldintza gisa.
- Egiatztatutako hizkuntza-eskakizuna, baldin badaukate. Bestela, hizkuntza-eskakizuna egiatztatu ahalko dute 8.3 oinarrian hirugarren ariketarako ezarritako modu eta epean.

Hautapen-prozesuari buruzko argibideak edo informazioa behar izanez gero, posta elektronikoz eskatu beharko dira, eskabide-inprimakiarekin batera adieraziko den helbidean.

5. Izangaiak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, onartuen eta baztertuen zerrenda onetsiko da alkatetza-dekretu bitartez. Bazter utzitakoen kasuan, horretarako arrazoiak adierazi beharko dira; eta eskabidean akatsak edo hutsuneak zuzendu behar dituztenen kasuak ere zehaztuko dira. Aipatutako ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

10 egun balioduneko epea egongo da akatsak edo hutsuneak zuzentzeko, aurreko ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Gero, Alkatetzak ebazpen berria emango du, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin. Ebazpen hori ere Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da, besterik gabe.

Izangaiak onartu izanak ez du esan nahi prozesua izapidetu bitartean baztertuak ez izateko eskubidea izango dutenik: alde batera utzita ea proba guztiak egiten dituzten ala ez, izangaiak kanporatuak izan ahalko dira, aurkeztu dituzten datuak edo agiriak aztertu ondoren ikusten bada ez dituztela betetzen onartuak izateko eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko ezarritako betekizunak. Kasu horretan, epaimahaiak baztertze-proposamena aurkeztuko dio alkate udalburuari, interesdunari entzunaldia eman eta gero ebatzi dezan.

Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen dekretuan baztertu gisa agertzen diren izangaiek errekursoak aurkezten badituzte, eta, hautaprobak egiteko datan, errekurso horiek oraindik ebatzi gabe badaude, izangai horiek hautaprobak egin ahalko dituzte, nahiz eta, gero, aipatutako errekursoak ezesten badira, ez duten baliorik izango.

6. Epaimahai kalifikatzailea

6.1 Alkatetza-dekretu bitartez jakinaraziko dira, batetik, hautaketa-epaimahaiaren osaera, eta, bestetik, lehenengo ariketa egiteko tokia, data eta ordua.

6.2 Epaimahaiaren osaerak bat egingo du Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluekin (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen aipatutako testu bategina) eta Euskal Funtzio Publikoaren



uztailaren 6ko 6/1989 Legearekin. Epaimahaiburuak, idazkariak eta lau epaimahaikidek osatuko dute Epaimahai Kalifikatzailea, eta kide guztiek eduki beharko dute deialdian parte hartzeko eskatutako titulu akademikoaren maila bereko edo goragoko titulazioa. Bestalde, Epaimahaiko kide guztiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute. Idazkariak, aldiz, hitz egin bai, baina ezingo du botorik eman. Epaimahaia osatu beharko da kideen inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioetatik abiatuta. Gainera, osaera parekidearen alde egingo da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikulua xedatutakoaren haritik.

Epaimahaikideetako bat izendatuko da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen proposamenari jarraituta.

Deialdian ezarritako hizkuntza-eskabideak egiaztatzeko probetan, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako epaimahaikide bat egongo da, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 99.2 artikulua ezarritakoa betetzeko.

6.3 Epaimahaiak aholkulariak deitu ahalko ditu. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira, hautapen-prozesuaren proba batzuetan edo guztietan. Halaxe aurreikusten du Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31.3 artikulua.

6.4 Epaimahaiko kideek ezingo dute parte hartu, baldin eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako ingurua-barren bat ematen bada; eta, kasua hori bada, horren berri eman beharko diote alkate udalburuari. Era berean, Lege beraren 29. artikulua arabera, izangaiek epaimahaiak errekusatu ahalko dituzte, aurreko artikuluko arrazoiren bat tarteko denean.

6.5 Oinarri hauetan aurreikusi gabeko kontuetarako, Epaimahaiaren jarduteko prozedurak bat egingo du maiatzaren 20ko 2070/2019 Alkatetza Dekretu bidez onetsitako oinarri orokorrekin eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15-19 artikuluetan ezarritakoarekin.

Epaimahaiaren jarduketa eta/edo argitalpenen gaineko alegazioak idatziz aurkeztuko dira Udal Erregistroan, administrazio elektronikoaren atarian (HAZ atalean) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein modutan.

7. Deialdiak eta jakinarazpenak

Alkatetzaren eta Epaimahaiaren erabakiak deialdiari, emaitzei eta notei buruz, bai eta beste jakinarazpen eta ebazpen batzuk ere, Interneten argitaratuko dira, lehen adierazitako Basauriko Udalaren helbide elektronikoan. Horrek ez du eragotziko egoki iriztitako beste publizitate-bide batzuk ere baliatzea.

8. Hautapen-prozesua

8.1 Lehen ariketa (nahitaezkoa eta baztertzailea)

Bi zati izango ditu, eta bietako bakoitza gainditu beharko da.

— A) Atala

Epaimahaiak ezarritako gehieneko denboran, oinarri hauetako gai-zerrendaren zati orokorreko eta espezifiko (I. eranskina) edukiei buruzko erantzun anitzeko galderei erantzutea. Galdera bakoitzeko 4 erantzun egongo dira, eta txarto erantzundako galderek puntuak kenduko dituzte.

Puntuazio zuzena honelaxe kalkulatu da: ondo erantzundakoak ken txarto erantzundakoen herena ($P = O - T/3$). Erantzun gabe utzitakoak ez dira akats gisa zenbatuko.

A) ataleko azken puntuazioa 0-10 bitartekoa izango da, eta bi dezimal ere onartuko dira. 5,00 puntuko gutxienezkoa lortzen ez dutenak prozeduratik kanpo geratuko dira, automatikoki.



Epaimahaiak erabakiko du zein izango den 5,00eko gutxienekoa lortzeko beharrezko puntuazioa, izangaien identitatea ezagutu aurretik eta aurkeztu direnen eza-gutza-maila aintzat hartuta.

Behin Epaimahaiak finkatuta zein izango den beharko den galdera zuzen kopuru garbia amaieran 5,00 puntu lortzeko, galdera zuzenen kopuru garbi hori azken puntuazio bihurtuko da, banaketa proportzional bati jarraituta; eta, era berean, 10,00eko azken puntuazioa izango da lor daitekeen erantzun zuzen garbien kopuru handiena. Esan bezala, 5,00eko azken puntuazioa lortzen ez dutenak prozesutik kanpo geratuko dira.

—B) atala

Galdera alternatibo sorta, non Epaimahaiak proposatutako kasu teoriko-praktikoa(k) ebatzi beharko bait(ir)a. Kasu hori(ek) deialdiko gai-zerrendaren I. eranskina naren zati espezifikokiari (I. eranskina) buruzkoa(k) izango d(ir)a.

Puntuazio zuzena honelaxe kalkulatu da: ondo erantzundakoak ken txarto erantzundakoen herena ($P = O - T/3$). Erantzun gabe utzitakoak ez dira akats gisa zenbatuko.

B) ataleko azken puntuazioa 0-20 bitartekoa izango da, eta bi dezimal ere onartuko dira. 10,00 puntuko gutxienekoa lortzen ez dutenak prozeduratik kanpo geratuko dira, automatikoki.

Epaimahaiak erabakiko du zein izango den 10,00eko gutxienekoa lortzeko beharrezko puntuazioa, izangaien identitatea ezagutu aurretik eta aurkeztu direnen eza-gutza-maila aintzat hartuta.

Behin Epaimahaiak finkatuta zein izango den beharko den galdera zuzen kopuru garbia amaieran 10,00 puntu lortzeko, galdera zuzenen kopuru garbi hori azken puntuazio bihurtuko da, banaketa proportzional bati jarraituta; eta, era berean, 20,00ko azken puntuazioa izango da lor daitekeen erantzun zuzen garbien kopuru handiena. Esan bezala, 10,00eko azken puntuazioa lortzen ez dutenak prozesutik kanpo geratuko dira.

Epaimahaiak B) atala zuzendu gabe utzi ahal izango die A) atala gainditu ez duten izangaiei.

Hautapen-prozesutik kanpo geratuko dira Epaimahaiak ariketa bakoitza gainditzeko finkatutako gutxienezko puntuazioa lortzen ez duten izangaiek.

Zati biak egun berean egingo dira, bata bestearen atzetik. Epaimahaiak proba bakoitza hasi aurretik zehaztuko du bakoitza egiteko gehieneko denbora. Probak egin bitartean ezingo da testurik kontsultatu, ez hizteirik, kalkulagailurik edo bestelako laguntzarik erabili, boligrafoa izan ezik.

Lehen ariketaren nota izango da bi zatietan lortutako puntuen batura, baldin eta zati biak gainditu badira.

8.2 Bigarren ariketa (nahitaezkoa eta baztertzaila)

Lanpostuaren eginkizun diren gaietatik abiatuta, Epaimahai Kalifikatzaileak jarritako hipotesi edo kasu praktikoak ebatzi beharko dituzte izangaiek.

Bigarren ariketan, gehienez ere 20,00 puntu lortu ahalko dira; eta, gutxienez, 10,00 puntu lortu beharko dituzte izangaiek, ariketa gainditzeko.

Izangaiei deialdi bakarra egingo zaie, Funtzio Publikoko Estatuko Idazkaritzaren Ebazpen bidez ezarritako hurrenkeran —ebazpen hartan argitaratu zen Estatuko Administrazioako langileak sartzeko Erregelamendu Orokorra, proba egingo den urtekoa—.

Proba hasi aurretik, epaimahaiburuak (edo hark eskuordetutako epaimahaikideak) probaren fitxa formalizatuen edukiaren berri emango die izangaiei, ozenki. Fitxa horietan finkatuko dira egin beharreko lanak, erabilgarri egongo diren materialak, proba egiteko denbora eta lanen kalitate-estandarrak.

Honako hauek ebaluatuko dira: kasu praktikoak ebazteko gaitasuna; materiala, makinak eta lan-teknikak egokiro erabiltzea; lanak garbitasunez eta segurtasunez egitea,



eta eraikin publikoetako mantentze-lanen arduradun baten zereginiei dagozkien ezagutza teoriko-praktikoak modu arrazoituan aplikatzea. Udalak hornituko ditu proba egiteko beharrezko materialak, baliabide teknikoak eta lanabesak.

8.3 *Hirugarren ariketa Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba*

Izangaiek euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko dute. Ariketa hori nahitaezkoa eta baztertzaila izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten sei (6) plazetarako, eta borondatezkoa eta ez baztertzaila, berriz, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ez duen plazarako (1).

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko idatzizko eta ahozko probak egingo dira IVA-Pek adierazitako tokian.

Ez dute euskara proba egin beharko berau hasi aurretik Epaimahaiari egiaztatzen diotenak honako egoeretako batean daudela:

2. hizkuntza-eskakizuna edo goragoko bat, edo horien baliokidea den titulu edo egiaztagiria badaukatela, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera.
- Proba egitetik salbuetsita daudela, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko den apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera.

Hizkuntza-eskakizuna honelaxe egiaztatuko da:

- IVAPek, HABEk, Osakidetzak edo Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak emandako ziurtagiri edo tituluak dituztenek baimena eman ahalko diote Baskuriko Udalari, hautapen-prozesuan parte hartzeko egiten duten eskabidean bertan, ziurtagiri edo titulu horiek dituztela egiaztatzeko.

Aurreko paragrafoan aipatutakoak ez beste euskara-ziurtagiri edo -tituluak dituztenek, Udalari egiaztatzeko baimenik ematen ez diotenek edo tituluak gerora lortzen dituztenek, dagokion titulu edo egiaztagiraren kopia aurkeztu beharko dute, euskara-probak egiteko data baino lehen.

- 47/2012 Dekretuaren arabera hizkuntza-eskakizuneko azterketa egitetik salbuetsita daudenek —ikasketak, osorik edo zati batean, euskaraz egin izanagatik— hala adierazi beharko dute eskabidean, eta, euskara-proba egiteko data baino lehen, ikasketak amaitu dituzten zentro edo unibertsitateak emandako ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute.

Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa den plazetan, ariketa honetan «Gai/Ez Gai» kalifikazioa lortuko dute izangaiek. Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa ez den plazaren kasuan, euskara-ezagutza merezimendu gisa balioetsiko da, honelaxe:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 2,50 puntu.
- 2. hizkuntza-eskakizuna: 5,00 puntu.

Ariketa honetan, gehienez ere 5,00 puntu lortu ahalko dira.

9. **Hautapen-prozeduraren emaitzak eta agiriak aurkeztea**

Hautapen-prozesuaren azken kalifikazioa izango da ariketetan lortutako puntu guztien batura (ariketa guztiak gainditu baldin badira, noski). Berdinketarik gertatuz gero, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2015 Legeak ezarritako irizpideen arabera ebatziko da. Irizpide horiek aplikatu eta gero oraindik berdinketa badago, oposizio-aldiko bigarren ariketan puntu gehien lortu duenaren alde joko da; eta, hori eginda ere, berdinketak jarraitzen badu, oposizio-aldiko lehen ariketako B) atalean puntu gehien lortu dituenaren alde egingo da. Hori guztia eginda ere berdinketa baldin badago, Epaimahaiak zozketa bidez erabakiko du.

Zozketa hori bakarra izango da, eta jendaurrean egingo da. Alfabetoaren letra bi aterako dira, eta berdinketako ebatziko dira egoera horretan dauden lehen abizenaren



hurrenkera alfabetikoaren arabera, ateratako bi letretatik abiatuta. Xede horretarako, «ZZ» letren ostean «AA» letrak etorriko dira. Izangaietako inoren abizena ez bada ateratako bi letrekin hasten, alfabetikoki hurrengo datorren abizenera joko da (aintzat hartuta, betiere, «ZZ» letrak eta gero «AA» letrak etorriko direla). Zozketaren emaitzak argitaratuko dira Basauriko Udalaren webgunean eta iragarki-taulan.

Hautaketa-prozesua amaitutakoan, Epaimahaiak Udalaren helbide elektronikoan argitaratuko ditu gaingitu dutenen behin-behineko kalifikazioak, guztira lortutako puntuazio handienetik txikienera, eta berariaz adierazita plaza betetzeko hautatutakoak nortzuk diren. Hautatutakoen kopurua ezingo da izan deitutako plazena baino handiagoa.

Gaingitu dutenen behin-behineko zerrendak argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera, interesdunek hamar (10) egun balioduneko epea izango dute bidezko jotzen dituzten erreklamazioak egiteko.

Erreklamaziorik aurkeztuz gero, Epaimahaiak horiek ebatzi, eta, gero, hautapen-prozesua gaingitu dutenen behin betiko zerrenda argitaratuko du.

Horren ostean, Epaimahaiak praktiketako funtzionario izendatzeko proposatzen dituen izangaien zerrenda argitaratuko du, eta 15 egun balioduneko epea zabalduko du, izangai horiek dokumentu konpultsatu bidez egiazta dezaten parte hartzeko 3. Oinarrian jasotako baldintzak betetzen dituztela. Era berean, epe horren barruan, izangaiek beren puntuazio-ordenaren arabera, jakinarazi beharko dute lanpostu hutsak betetzeko beren lehentasun-hurrenkera. Era berean, izangaiek honako agiri hauek entregatu beharko dituzte:

- a) NANaren fotokopia konpultsatua.
- b) Atzerriko izangaiek jakinarazpen bat jasoko dute Basauriko Udaletik, eta bertan adieraziko diete beren egoera kontuan hartuta zein agiri zehatz aurkeztu beharko duten, derrigorrez.
- c) Zinpeko aitorpena, adieraziz norbera ez dagoela ez funtzio publikoetan jarduteko gaitasungabetua, ez edozein herri administrazioetako zerbitzutik diziiplina-espediente bidez baztertua, ez eta abenduaren 26ko 53/1984 Legean herri administrazioetako langileentzat aurreikusitako ezintasunerako eta bateraezintasunerako lege-arrazoietan sartuta ere.
- d) Espainiako nazionalitatek ez duten hautagaiek zinpeko aitorpena aurkeztu beharko dute, adieraziz ez daukatela beren estatuan funtzio publikora sartzea galarazten dien diziiplina-zigorrik edo zigor penalik.
- e) Era berean, hautatutakoek egiaztatu beharko dute ez daukatela oinarri hauen arabera dagozkien eginkizunak betetzea galarazten dien gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik. Horretarako, dagozkien probak eta osasun-azterketak egin beharko dituzte, Basauriko Udalak dituen lan-osasun zerbitzuetan. Lanpostua betetzeko gaitasuna egiaztatzeko probetarako eta osasun-azterketarako deialdia modu pertsonalizatuan egingo da.
- f) Horrez gain, adin txikikoekin harremana egongo den lanpostuetarako, ezinbesteko baldintza da izangaiek egiaztatzea ez dutela zigorrak jaso ez sexu-askatasun eta -ukigabetasun delituengatik epai irmo bidez, ezta gizakien salerosketa-deli-
tuengatik epai irmo bidez ere. Hala xedatzen du Haurrak eta Nerabeak Babes-
teko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak.

Baldintza hori egiaztatzeko, Basauriko Udalari baimena eman beharko zaio adierazitakoari buruzko egiaztageria eskatzeko Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean; edo, bestela, horrelako deliturik ez dagoela egiaztatzen duen Erregistro horren agiria aurkeztu beharko du interesdunak (abenduaren 11ko 1110/2015 Errege Dekretuan araututa dago).

Adierazitako epe barruan, eta halabeharrezko inguruabarrak ematen direnean salbu, proposatutako izangaiek ez badute dokumentazioa aurkeztzen, edo ez badute egiaztatzen eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, ezingo dira funtzionario izendatuak izan, eta beren jarduketa guztiak baliogabetu egingo dira; eta horrek, gainera, ez du eragotziko eskabidea faltsutzeagatik erantzukizuna leporatu ahal izatea. Kasa hori de-



nean, izangaiak hautapen-prozesuko emaitzan izandako puntuazioaren hurrenkeraren arabera ordeztuko dira, ordeztukoak, aurretiaz, lehen aipatutako agiriak aurkeztu eta gero.

10. Praktikaldia eta prestakuntza-aldia

Hautatutakoek sei hilabeteko praktikaldi eta prestakuntza-aldia egingo dute, maiatzaren 20ko 2070/2019 Alkatetza Dekretu bidez onetsitako eta urte bereko ekainaren 11ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Oinarri Orokorren Hamaikagarren Oinarrian xedatutakoarekin bat.

11. Izangaiak izendatzea eta plazaz jabetzea

Izangaiak Basauriko Udaleko karrerako funtzionario izendatzea egingo da maiatzaren 20ko 2070/2019 Alkatetza Dekretu bidez onetsitako eta urte bereko ekainaren 11ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Oinarri Orokorren Hamabigarren Oinarrian xedatutakoarekin bat.

12. Aldi baterako lan-poltsak

Hautapen-prozesuaren emaitzekin lan-poltsa bat eratuko da, oposizio aldiko ariketak gainditu dituzten izangaiekin. Hasieran, 3 urteko iraupena izango du lan-poltsa horrek, eta aldi baterako langile-beharrizanak betetzeko baliatuko da. Lan-poltsa, bestalde, Basauriko Udaleko lan-poltsei buruzko araudian ezarritakoaren arabera kudeatuko da, jarraian datorren paragrafoan adierazitakoaren kalterik gabe.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera eratutako lan-poltsa agortzen bada, beste lan-poltsa batzuen aurrean lehentasuna izango dute nahitaezkoak eta baztertzailerak diren probarik gehien gainditu dituzten izangaiek osatutako zerrendek, gainditutako proba horietan guztira lortutako puntuen hurrenkeran.

Berdinketarik gertatuz gero, deialdi honetan bertan ezarritako irizpideen arabera ebatziko dira: lehenengo, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2015 Legean aurreikusitako irizpideen arabera; bigarren, oposizio-aldiko bigarren ariketan kalifikazio altuena lortu duenaren alde; hirugarren, oposizio-aldiko lehen ariketaren B) atalean puntu gehien lortu duenaren alde, eta, azkenik, zozketa bidez.

Deialdian ezarritako baldintzak betetzeari buruzko egiaztagiriak bakar-bakarrik aurkeztu beharko dituzte lanerako deitzen dituzten lan-poltsako kideek: dagozkion agirien kopiak aurkeztu beharko dituzte, kontratua formalizatzeko unean.

Lan-poltsa eratu ostean lortutako hizkuntza-eskakizunen egiaztagiriak, berriz, edozein unetan aurkeztu ahalko dituzte, Giza Baliabide Arloan. Dena dela, hizkuntza-eskakizunek ez dute izangaiei puntuazioa handituko: lan-poltsa eratzean finkatutako hurrenkerak mantenduko da.

13. Izaera pertsonaleko datuak babestea

Hautapen-prozesuan zehar jasotako edo sortutako izaera pertsonaleko datuak tratatuko dira datuen babesaren alorreko indarreko araudiak ezarritakoarekin bat.

Eskabideetan emandako informazio guztia fitxategi batean gordeko da. Fitxategi hori bakar-bakarrik erabiliko da kudeatzeko hautapen-prozesua, eta aldi baterako langileak eta bitarteko funtzionarioak izendatzeko lan-poltsa.

Deitutako plazak lortu nahi dituztenek beren adostasun espresua emango dute segurtasun-neurriak behar dituzten eta hautapen-prozesurako beharrezkoak diren datuak tratatuak izateko.

Hautapen-prozesuan zehar emandako datuak, bestalde, eskatzen dituzten beste administrazio publiko batzuei laga ahalko zaizkie. Izaera pertsonaleko beren datuak lagatzea nahi duten izangaiek, horretarako baimen espresua eman beharko dute, deialdiaren eskabidean bertan.

Hautapen-prozesuan parte hartzen dutenen informazio-eskubidea bermatzeko, zerrendak kontsultatu ahalko dira Internet bidez, lehen adierazitako Basauriko Udalaren helbide elektronikoan.



Eskabidean jasotako helbidea, telefono-zenbakiak eta helbide elektronikoak baliozkoztat joko dira. Eskabidea egiten dutenen erantzukizuna da, bakar-bakarrik, datu zuzenak ematea eta Epaimahaiari horien gaineko aldaketen berri jakinaraztea.

Egin beharreko jakinarazpenetarako, eskabidean adierazten dena hartuko jakinarazpenetarako helbidetzat, ez bada gerora beste bat jakinarazten zaiola deialdia egin duenari, berariaz eta modu frogagarri batean.

14. Gorabeherak

Epaimahaiak oinarri hauetan zehaztu gabe dagoen guztiari buruz sor daitezkeen zalantzak ebatzi, eta hautapen-prozesua behar bezala garatzeko beharrezko erabakiak har ditzake.

Interesdunek deialdiaren, oinarrien eta horietatik eta Epaimahai Kalifikatzailearen jardueratik erator daitezkeen administrazio-egintza guztien kontra egin dezakete, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean zehaztutako kasuetan eta bertan ezarritako moduan.

**I. ERANSKINA****GAI-ZERREDA****ZATI OROKORRA**

1. gaia.—1978ko Espainiako Konstituzioa: printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubi-deak eta betebeharrak (Konstituzioa: Atariko titulua eta I. titulua).

2. gaia.—Udal antolamendua (Espainiako Konstituzioa, 140. artikulua). Udal antolamendua (Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985eko Legea, 19. eta 20. artikulua).

3. gaia.—3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa. Legearen helburua. Aplikazio-eremua. Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasun printzipioa. Administrazio publikoen jardute-irizpideak (1., 2., 3. eta 51. artikulua).

ZATI ESPEZIFIKOA

4. gaia.—Aritmetikako kultura orokorra: oinarrizko ezagutzak. Batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak. Ortografia. Gramatika. Kultura orokorra.

5. gaia.—Pintura: ezagutza orokorrak. Pintatzeko tresnak eta produktuak erabiltzea.

6. gaia.—Igeltserotza: Eskuzko tresna eta lanabesak: erabiltzea, garbitzea, zaintzea eta mantentze-lanak egitea.

7. gaia.—Iturgintza: kontzeptu orokorrak. Iturgintzako lan nagusiak. Tresnen, lanabesen eta materialen tipologia, erabilera eta zaintza ezagutzea. Iturgintzako instalazioen mantentze-lanak (komunak, txorrotak, zisternak, sifoia). Mantentze-lanak berotze-sistemetan (zirkuituak, betetzea eta airea kentzea. Berogailuak. Galdara-gelak, elementu garrantzitsuak).

8. gaia.—Elektrizitatea: kontzeptu orokorrak. Ikurren interpretazioa. Argiketarien oinarrizko tresnak ezagutzea, erabiltzea eta horietan mantentze-lanak egitea (bihurkinak, artaziak, aliketak eta beste lanabes batzuk). Kaxa elektrikoak eraikinetan (potentzia-kontrolaren etengailua, magnetotermikoak, diferentzialak). Soinu-zirkuituak (sakagailuak, txirrinak). Oinarrizko argizatze-zirkuituak (etengailuak, konmutadoreak, lur-konexiodun eta lur-konexiorik gabeko entxufe-oinarriak, lanparak). Argi fluoreszenteen zirkuituak (pitzarazgailuak, erreaktantziak, lanpara fluoreszenteak). Zirkuitu bereziak (alarmak, larrialdi-argiak). Kanpoko argiak.

9. gaia.—Arotzeria: kontzeptu orokorrak. Arotzeriako oinarrizko lanak. Arotzen oinarrizko tresna eta lanabesak (mailuak, zerrak, trintxak, zulagailu elektrikoak, lixak, kolak eta beste tresna eta lanabes batzuk). Sarrien egin ohi diren mantentze- eta konponketa-lanak: (ateak eta leihoak doitzea). Sarrailek eta sarraile-zilindroak. Pertsianak: Motak, eta mantentze- eta konponketa-lanak.

10. gaia.—Egiturak muntatzea, oinarrizko mekanika orokorra. Tresnak, lanabesak eta eragiketa errazak. Eraikuntzako makineria txikia (sorgailuak, hormigoi-makinak, konpresoreak, erreminta elektrikoak) erabiltzea eta makineria horren oinarrizko zaintzak. Mekanikako oinarrizko tresnak (mailuak, bihurkinak, zenbait giltza, zerrak, zulagailu eramangarria eta beste batzuk) ezagutzea, erabiltzen jakitea eta horiei mantentze-lanak egitea. Sarrailegintzako oinarrizko eragiketak (ate eta leiho metalikoak doitzea, sarrailek eta sarraile-zilindroak, mantentze-lanak metalezko altzarietan).

11. gaia.—Laneko segurtasunari eta higienari buruzko oinarrizko arauak. Makinak erabiltzeko, lan egiteko, kalean jarduteko eta lanen seinalizazioari lotutako oinarrizko segurtasun-neurriak ezagutzea. Suteen eta larrialdien aurreko prebentzio-neurriak eta jarduteko jarraibideak. Zamak garraiatzea. Segurtasuna eraikin publikoetan. Lehen soro-spenak.

12. gaia.—Ekipamendu eta dotazio publikoen kokapena Basauri udalerrian.

13. gaia.—Laguntzaile-lanak. Bulegoko makinak erabiltzea eta oinarrizko mantentze-lanak: grapagailuak, fotokopiagailuak, inprimagailuak, eskanerrak, plastifikagailuak, multikopiagailuak, orriak josteko makinak, dokumentu-birringailuak, linea anitzeko telefonoak, proiektagailuak, soinu-sistemak, megafonia-sistemak.